

Euzkeldun neskatalai

Sendi zoruntsubak

Aspaldian ixilik egonda, ona emen neu bañiro natorala zubei adara joten.

Irakuñerik gitxi eukiko doda bai-dakit, neure jardunak gogaikañjak dira-ta. Baña nik uste-dot EUZKO-DEYA eztabela gixonak bakañik irakuñi biañ, ta neskatalen aitxian be zabaldu biañ-dala, euzkotu ta euzkelfzaletu dafezantat.

Olan etxake jazoko «Landibaf» en irakuñi doguzan gauza negañgafijak.

Eta arek egijak dira, egi gañatzak. Uri andijetara otseñak ixaten juaten diran euzkeldun neskatalik geyenak, galdu egileñ dira Abéfirako ta batzutan Donokirako be.

Augañik, gai onetzaz esango dan gustija gitxi ixango da.

Uri andijetan afisku andijak dagoz neskatalentzat, batez-be baseñjetatik datozanentzat.

Lenengo, ba, gurasuai esan biañ dautsogu eztagijezala bidaldu euren alabiak uri andijetara otseñak ixaten, al-iñanezkerro, geyenetan diru apur bategatik diruba baño geyago balijo dauna galtzen dabe-ta.

Baña bein urira etorizkerro, neskatalai esan biañ-dauñtsegu, kontuz begiratu biañ-dabela zer egiten daben. Urrijetan miru asko dagoz ta zain ibili biañ dira neskatalak, duñak ihan gura ba-dabe.

Bere buruba mañe-daun neskatala, lenen-lenen garbizalia ihan biañ-da. Ez oñik ibili dantzari dantza, zoruak lez; jantzietan apala ihan, txankak eta papaña agirijan, lotsabako askok lez, erabili-barik. Gauza onek, neskatal arin batzuk uste-daben-baño gañantzi edo importantzia geyago dauke.

Eta euzkeldunak ba-dira, euzkeltzaliak ihan biañ-dira; euzkeltzaliakin batu, ez oñik dabiltsan belañimotz itxusi ofekin.

Euzkeldun mutilak, geyenetan, belañimotzak baño eder, sendo ta zindubaguak ixaten dira. Egija da eztirala ixaten arek baxen bañitxu ta zurikatzaliak, baña zurikatzaliakandik... liberanos Domine.

Euzkeldun neskatalak: zinduak eta euzkeltzaliak bazarie, Jauna'k zainduko zaitube afisku gustijetatik eta gero, sendija egitera elten ba-zarie, zorundunak ixango zarie.

Onetzaz jardun gura neban gauñkuan, baña luzegiñu naz-ta, ufengorako isten dot.

Aguñ, ba, ufengorarite.

ETXAKIN.

OLA TA ITXASONTZI JETARAKO

ORIJO, TRESNA TA MARGOKI

INTXAURAGA'TAR P.

BARAKALDO (Bilbao)

5087 Urutizkiña

Irakuri Euzko-Deya

Onen urengo agetuko dan zenbakia irakurteko alegindu zaitez,

* * *

- «Zelan zagoz? - iñandutene dautso agure gixaxo bati bertako osalarriak (medikubak).

- Txarto, gustiz txañto. Inok esango bañetst orain aspalditik il na-



ITXASOKO GORA-BERAK

MONTEPIUA

Aspalditik dabilts itxas-gisonak Montepiu soñuteko alegijetan. Montepio au da eurok zar-eginda itxasotik aldendu daitezeneko dirutxurik artzeko edo itxasan edo etxian il-ezkerro, euren sendijai (pamisijai) diruboi emoteko.

Asmo ona la begiku i da itxas-gixonoi on andija egingo eutsena.

Montepio ori egiteko Gobernubari eskatu dautsoe bein-bano geyagotan. Gobernubak, baña, jaramonik ez.

BAÑA IBILI TA IBILI,

zeozer loftu dabe. Gobernubak lendik eukan ija miloe-erdi laurleko Montepiu soñuteko. Diru ori zan ontzi-jaubiak, Gobernubaren aginduz, emona: Gobernubak len emoten eutsezan eun pesetatik lau.

Diru ori ezta naikua Montepiu egiteko, baña Gobernubak •Instituto Nacional de Previsión• deritzon baxkunaren ardurapian itxi dau, onek soñtu dagijan Montepiu. Era Institutiua asi da lanian Montepiu egiteko.

OÑETARAKO,

idazki-orokara edo zirkular bat egin eta zabaldu da Bizkaya'n, (en Gipuzkoa'n zabaldu eban lez) erderaz ta euzkeraz (bañ, euzkeraz be) jakiteko zenbat itxastarek sañtu gura daben Montepian. Au jakin-arte ezin esan Institutuak zelako onureak (probetxubak) aituko dabezan itxas-gixonok.

Institutuak egin daikena ezta itxastarek asetuteko aña.

ONEK GURA EBEN

ori baño geyago: Gobernubak, ontzi-jaubiak eta eurak onenbeste edo ofenbeste diru emon (beste lateñjetan (naziñuetan) egiten dan lez), onura anditzubaguak aitü al-iñateko.

Baña Gobernubak eztai sakela zabaldu gura; ontzi-jaubiak be eztira ain esku-zabalak..., eta oñ geratu dira gure gixonak nora jo eztakijela.

Institutuak aginduten dautsena aitutenez ezañ-dabe, ezer-barik lotu dira. Era eurak igañten dabe Institutuak ezin daula gauza andirik emon...

Arazo au ardura andiduna da itxastarentzako, bai ontzi andi ta txikijetan dabiltsanentzako, baita be afanzalentzako.

ESPAÑAR DOTXALE

edo germanofiliak esaten dabe, ainbat ontzi, ikatzen biña, Engald'era duazala ikusila: ¿Zetarako juan ara? ¿Eztago España'n berian biañ dogun beste ikatz? England'era juan-barik, Asturias'era juan biärko ziran.

BAÑ, GANORA ONA

dago España'n ontzijok ikatzez betetako. Gijon eta San Esteban de Pravia'n ainbat eta ainbat ontzi egoten dira ilabete bat, eta bi, eta iru eta lau be zorijoneko ikatz ofen begira. Ontzijok ereskada andijar dagoz beti ikatzaren zain.

Igaz Florinda ixendun ontzija, Bilbao'kua, Gijon'en egon zan ikatzaren begira lau ilabete ta ogetabost egun, ija bost ilabete.

Eta onen antzera, beste asko, Madrid'en eñekomendaziorik eztuenak. Agudo kargetan dabe gero España'ko portibetan!

Gijon eta San Esteban'etik etori leiken ikatzaren begira bañego ola ta bultzijak, itxura ona eukiko eben onezkerro.

Baña-espaniarak beti esaten: Zegaitik iñora juan ikatzen bilatxian bertan bañaukagu biañ dogou gustija?

Bai, zereko ganoria dauke gure españar zorijonekuok!